

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena(k) edo egokiena(k):
- a) **Igeltseroak** etxea konpondu beharrea, itzelezko lardaskeria egin dit.
b) **Igeltsariak** etxea konpondu beharrea, itzelezko lardaskeria egin dit.
 - a) **Ahoskera** hori entzunda, berehalaxe jakin genuen erbestekoa zela.
b) **Ahozker**a hori entzunda, berehalaxe jakin genuen erbestekoa zela.
 - a) Urteetan **ekonomilari** jardun ostean, lanpostua laga eta Txinara abiatu zen abentura bila.
b) Urteetan **ekonomialari** jardun ostean, lanpostua laga eta Txinara abiatu zen abentura bila.
 - a) Mundakako **aratustetan** Atorren Eguna izan ohi da jendetsu eta ederrena.
b) Mundakako **aratostetan** Atorren Eguna izan ohi da jendetsu eta ederrena.
 - a) **Enpresaburuak** erabaki zorrotzak hartu eta berrehun behargin kaleratu behar izan zituen.
b) **Enpresa-buruak** erabaki zorrotzak hartu eta berrehun behargin kaleratu behar izan zituen.
 - a) Nik mailukizko **jogurtak** baino ez ditut gustuko.
b) Nik mailukizko **yogurtak** baino ez ditut gustuko.
 - a) Jendea erruz bertaratu zen alderdi politiko guztiak deitutako **manifestaldira**.
b) Jendea erruz bertaratu zen alderdi politiko guztiak deitutako **manifestaziora**.
 - a) Diruarena **beren-beregi** eztabaidatu beharreko gaia da.
b) Diruarena **berenbereg**i eztabaidatu beharreko gaia da.
 - a) **Kartzela** leporaino zegoenez gero, beste bat eraiki behar izan zuten handik hiru kilometrora.
b) **Gartzela** leporaino zegoenez gero, beste bat eraiki behar izan zuten handik hiru kilometrora.
 - a) Lo egiteko lasaigarriak hartzen jarraituz gero, **mendekotasun** ikaragarria sorraraziko diote.
b) Lo egiteko lasaigarriak hartzen jarraituz gero, **menpekotasun** ikaragarria sorraraziko diote.
 - a) **Ezjakin** hutsa izanagatik ere, dena dakiela pentsatzen du.
b) **Ez-jakin** hutsa izanagatik ere, dena dakiela pentsatzen du.
 - a) **Ahokotasuna** jendaurrean berba egiteko jagon beharreko ezaugarririk garrantzitsuenetariko bat da.
b) **Ahoskotasuna** jendaurrean berba egiteko jagon beharreko ezaugarririk garrantzitsuenetariko bat da.
 - a) Behin eta berriz esan dizuet esaldi hori **ezgramatikala** dela.
b) Behin eta berriz esan dizuet esaldi hori **ez-gramatikala** dela.

A R I K E T A K

14. a) Ez **naiz fio** horrelako inozokeriak esaten dituztenekin.
b) Ez **naiz fido** horrelako inozokeriak esaten dituztenekin.
15. a) **Aiitita-amamek** bilobak zaintzen eman zuten arratsalde osoa.
b) **Aiitite-amamek** bilobak zaintzen eman zuten arratsalde osoa.
16. a) **Begihandi** ezin gozoagoak prestatu dizkigute Plentziako jatetxe horretan.
b) **Begiandi** ezin gozoagoak prestatu dizkigute Plentziako jatetxe horretan.
17. a) **Segundu** gutxitan gertatu zenez, ez ginen jabetu.
b) **Segundo** gutxitan gertatu zenez, ez ginen jabetu.
18. a) **Gurata** ere, ez dute lortuko.
b) **Gureta** ere, ez dute lortuko.
19. a) **Ezkonbizitza** ez zen hark hasieran pentsatu bezain eztia.
b) **Ezkon-bizitza** ez zen hark hasieran pentsatu bezain eztia.
20. a) Ezin uka Donibane Lohizuneko **hondartza** hagitz ederra dela.
b) Ezin uka Donibane Lohizuneko **ondartza** hagitz ederra dela.



Denbora nozio hauetarik, zein da zuzena edo egokiena?

1. a) **Bihar goizez** joango gara mendira.
b) **Bihar goizean** joango gara mendira.
2. a) **Gaur gauetz** *Kalakan* ikusiko dugu, emigrazioari buruzko saio interesgarria emango dute eta.
b) **Gaur gauean** *Kalakan* ikusiko dugu, emigrazioari buruzko saio interesgarria emango dute eta.
3. a) **Behin** besterik ez genuen ikusi; horregatik, ez naiz harekin gogoratzen.
b) **Aldiz bat** besterik ez genuen ikusi; horregatik, ez naiz harekin gogoratzen.
4. a) Filma **dagoeneko** amaituta egongo da.
b) Filma **honezker**o amaituta egongo da.
5. a) **Beste egunean** Jonen etxera hurreratu bai, baina ez genuen aurkitu.
b) **Lehengo egunean** Jonen etxera hurreratu bai, baina ez genuen aurkitu.
6. a) **Gaur goizean** ez dakit zer arraio egingo dudan.
b) **Goiz honetan** ez dakit zer arraio egingo dudan.
7. a) Oporrak **apirilan** izango ditugu.
b) Oporrak **apirilean** izango ditugu.
8. a) **Gau honetan** ziur aski afaltzera etorriko dira lagun guztiak.
b) **Gaur gauean** ziur aski afaltzera etorriko dira lagun guztiak.

9. a) Goiz ala berandu lortuko dugu.
b) Laster ala berandu lortuko dugu.
10. a) Ostiral gauean kontzertu hori entzutera irtengo dira.
b) Ostirala gauean kontzertu hori entzutera irtengo dira.

3 Sinonimoak eman:

1. Udaberriko **mailukiak** gozoenak izaten dira.
2. Etxea **eregiteko** lanak lehenbailehen amaitu behar ditugu.
3. Lanak **esleitzeko** epea datorren astean amaituko da.
4. **Ñabardura** horiek garrantzi handikoak dira, auzia egokiro ulertuko badugu.
5. **Bailara** horretan gero eta jende gutxiago bizi da.
6. Elizak gero eta arazo gehiago ditu **abadeak** aurkitu eta mezak eman ahal izateko.
7. Zirt edo zart **ebatzi** behar dugu gai horren inguruan.
8. Hori aspaldi **jazo** zen; dagoeneko ez daukagu horren berri.
9. Hizkera **erkideak** ez dauka zerikusirik hizkera espezializatuekin.
10. Lehengo egunean mendiko bizikleta **ebatsi** zidaten, baina uste dut berreskuratu ahal izango dudala.

SOLUZIOAK

1 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

- 1. a 11. a
- 2. a 12. a
- 3. b 13. b
- 4. a 14. a
- 5. a 15. a
- 6. a 16. a
- 7. b 17. b
- 8. a 18. a
- 9. a 19. a
- 10. a 20. a

2 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu:

- 1. b
- 2. b
- 3. a
- 4. b
- 5. b
- 6. a
- 7. b
- 8. b
- 9. a
- 10. a

3 Sinonimoak eman:

- 1. Marrubiak
- 2. Eraikitzeko, altxatzeko...
- 3. Adjudikatzeko, emateko...
- 4. Xehetasun, berezitasun...
- 5. Eskualde, auzo, auzune... (Hitz hau ez da *haran* edo *ibar*-en sinonimoa)
- 6. Apaizak, elizgizonak...
- 7. Erabaki, deliberratu...
- 8. Gertatu, agitu...
- 9. Komunak
- 10. Lapurtu, ostu...